

# ttipi ttapa


2005eko irailaren 8a • XXV. urtea



**Luberriagatarrak  
musika tresnak egiten**

03

Kristof Luberriaga saratarrak Afrikako «kora» harizko musika tresna modernizatzekeo ideia ukan zuen. Elektrokorak eta kitarra elektrikoak egiten ditu orai.



**Doneztebeko taldea  
laxoan txapeldun**

28

Abuztuaren 7an jokatu zen Baztan-Errekako XXVI. laxoa txapelketaren finala Donezteben eta herriko taldeak aisa irabazi zion Iruiritari, 15garren txapela jantziz.

IRAILAREN 18AN OSPATUKO DUTE


1855

## Doneztebeko Bear-Zana pilota plazak 150 urte

04



# MUEBLES METS



**Iarunbat arratsaldetan irekia**

**4000m<sup>2</sup> ERAKUSKETA  
moblez beteak:**

- errustikoak
- modernoak
- klasikoak
- gazteentzako
- sukaldeak
- bainugelak
- atsedenaia
- iluminazioa
- dekorazioa
- merkealdiak
- tapizak

Sastrin karrika,  
3.2 - 3.4 Alkaiaga  
**31789 BERA**  
Tfnoa. 948 630 537  
Fax. 948 631 443

**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)



**MOTORRA DUEN SOMIER MUGIKORRA**  
36"196



**%100 LATEX KOLTZOIA**

**ESKAINITZA**  
**575 €**

**Iraileko iarunbat arratsaldeak itxita**



1996.  
urteko  
zerbitzu  
onenaren  
aitzindari



**elduaien**  
hizkuntzaeskola • akademiarelaidiomaz



**Zurekin gara berriro**  
**Matrikula epea: Iraila**  
**Mugi zaitetz ordua hartzeko:**  
**Lehenengoek lehentasuna dute**



- **Euskara**
- **Ingelesa**
- **Frantsesa**
- **Alemana**
- **Gaztelera**
- **Italiera**

% 948 510 635 629 % 943 670 052  
818310 Martin Jo e Iraola - 8. - T L  
Elbarren, 20 - 1. 31880-LEIT A  
ZA % 943 674 733

## DATUAK...

- Kristof Luberriaga saratarrak ez du sekulan ikasi norbatekin instrumentuen egiten, baina duela 7 urte Afrikatik itzultzean, «kora» hango hari instrumentu baten modernizatzearen ideia ukan zuen.
- Dirulaguntza eskuratu zuen gazte lehiaketa batean eta prototipoak atera zituen. Proiektu hori landuz ohartu zen soinu fisiko batetik soinu elektriko batera erabiltzen zuen teknika (Pietzo kaptadoreak) oso ona zela eta gitarrak egiten ere hasi zen.



Kristof LUBERRIAGA *Sarako musika-tresna egilea*

ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

## «Elektrokora instrumentua aitzinera urratsa dela pentsatzen dute denek»

Xan HARRIAGUE

Zer da «kora» eta zer aldaketa egin dizkiozu elektrokora deitzen den musika-tresna asmatzeko?

Kora hari instrumentu bat da, Kazamanzetik heldu da, Senegaleko hegoaldean. Han Krio deitzen diren familiak erabiltzen dute, bereziki istorioak, ipuinak eta genealogia kontatzeko. Bere forma tradizionalan sinpleki azaltzeko giderra eta erresonantzi kutxak osatzen dute, usaian azken hori nahiko handia da. Egun batez, Uagadugun nintzen, Burkina Fason, eta ostatu hartan kora joile bat ari zen. Bainan ohartu nintzen bere koran aldaketa tiki bat egin zuela, ez zituen usaiako nylonezko hariak baizik eta harpa batenak. Orduan gogoratu zitzaidan aldaketa hori haratago eramaten ahal zela, badira gitarrak klasikoak eta gitarrak elektronikoak, beraz, zertako ez kora elektronikoa. Hortik goiti, proiektuari bueltak eman nizkion eta azkenean urte batzuk lan egin eta entseatu ondoren atera dugu elektrokora deitu duguna. **Egiten dituzun gitarrei buruz zer erraten ahal diguzu?**

«Gehien bat musikazaleak biltzen dituen Africora elkartearekin harremanean emanen ditugu Senpereko ikastola eta Burkina Fasoko lehen mailako eskola bat»

Gitarran aldatzen den gauza bakarra sa soinua elektrifikatzeko manera. Elektrokora Pietzo kaptadorearekin ukan nituen emaitzak nahiko onak ziren, eta beraz, saiatu nahi nuen. Ateratzen den soinua da gitarra elektronikoa eta elektroakustikoaren artekoa. Denbora berean doikuntza berezi batekin gitarrak berean ukaiten ahal dituzu bi soinu ezberdin horiek. **Zein da orain arte ukan duzun arrakasta?**

Egia erran nahiko ona izan da bainan aitortu behar dut kritikak bildu ditudala ere. Itxuraren aldetik erantzun ona izan da alde guzietatik. Gero, kora ezagutzen ez zutenetan, soinuak arreta anitz deitu du. Aldiz, joile tradizionalak izan dira kritikoenak. Aski ongi atzeman badute ikuspegi praktikoa batetik, tikiagoa eta beraz aise-

ago ibiltzen ahal zelako, soinuaren aldetik uste dut aurrerakoiegia izan dela haientzat eta bereziki jotzen duten estiloarentzat. Diagnostika horretatik abiatuz, aldaketa batzuk egin ditut. Hala ere, uste dut denek pentsatzen dutela aitzinera urratsa dela. **Horren inguruan Africora elkarteak sortu duzue. Azaltzen ahal diguzu zer diren elkarte hunen helburuak?** Elkarte horren egiteko bildu ginen lagun kuadrila bat, gehien bat musikazaleak, Burkina Fasorekiko harremanak sakontzeko. Lehen helburua izanen zen elektrokora hori ongi saltzen bada han eginaraztea, beraz, lan pixka bat eskaintzea. Bertalalde, ikastaro batzuen eskaintzeko asmoa dugu, soinuaren teknikan. Azkenik, harremanean emanen ditugu Senpereko ikastola eta hango lehen mailako eskola bat. Pentsatzen dugu hemen guraso bakoitzak haurra eskolara eramaten duelarik Afrikako haur baten eskolaratzeko gastuak pagatzen ahalko lukeela. Azpiegitura badute, baina sartzeko ordaindu behar dena, 10 euro inguru baizik ez bada ere, anitzentzat gehiegi da.



TIBURTZIO ARRAZTOAREN «GUANTE-LAXOA: LA MODALIDAD MAS ANTIGUA DE LA PELOTA VASCA» LIBURUTIK HARTUTAKO ARGAZKIA  
Laxoa partida Bear-Zana pilota plazan XIX. mendean, plaza egin eta urte gutti batzuetara. Zolan harea zuen plazak, baina ez zen putzurik egiten, drenatze-sistema berezi bati esker.

IRAILAREN 18AN HAINBAT OSPAKIZUN EGINEN DIRA

# 150 urte bete ditu Doneztebeko Bear-Zana pilota plazak

**Doneztebeko Bear-Zana pilota plazak 150 urte bete ditu. Urtemuga hori ospatzeko, Laxoa Elkartek zenbait ekitaldi antolatu ditu irailaren 18rako. Pilota plaza hau laxoan eta pilotan aritzeko ez ezik, bertze hainbat ekitalditarako ere erabili da: aizkora apostuak, dantza saioak, herritarren bilgune... Horregatik, herritar guztiendako besta eguna izanen dela azpimarratu nahi izan dute Laxoa Elkartetik, ez laxoarekin lotutako jendearentzat edo gazteentzat bakarrik. Patxiku Ganboa eta Tiburtzio Arraztoa antolatzaileekin izan gara, irailaren 18ko egitarauaz gain, Bear-Zana pilota plazaren 150 urteotako historiaren berri izateko.**

## Aitor AROTZENA

Bear-Zana pilotalekua 1855an inauguratu zen, baina ez dago egun zehatzaren berririk. 150 urteurreneko ospakizuna egiteko irailaren 18a aukeratu du Laxoa Elkartek. Hasieran bizpahiru asteburuetan ekitaldiak egitea pentsatu baldin bazuten ere, azkenean, ahalik eta jende gehiena elkartzeko helburuarekin, egun bakarrean bildu dituzte egin beharreko bes-

ta, omenaldi eta ospakizunak. Hone-la, irailaren 18ko goizeko 10:30etan txistulariak arituko dira. 11:00etan laxoa desafioa izanen da, lehen aritutako guantelarien artean. Herriko dantzarien saioaren ondotik, eguerdian laxoa desafio sinesgaitza iragarri dute antolatzaileek, imagina ez daitekeen goi-goi mailako partida. Bertzelako berririk ez dute eman nahi eta «zer gisako partida den ikusteko, one-

na egun horretan Bear-Zanara agertzeara» izanen dela azpimarratu nahi izan digu Patxiku Ganboak.

Partida hau akituta, 13:15ak alde-ra, plazari eta pilotariei omenaldiak egingen zaizkie. Erran behar da hainbat pilotarik jasoko dutela omenaldia. Alde batetik, azken boladako txapelketetan, 1980tik honat aritu diren 49 guantelari eta 2 tattari omenduko dira. Bertzetik, 1960ko hamarkadan aritutako Jaime Agirre, Agustin Eraso, Pedro Larraza eta Faustino Ziganda pilotariak omenduko dira, baita Eusebio Arregi guante egilea ere. Ondotik, hilondoko omenaldia eskaini nahi dio Laxoa Elkartek Fidel Jdraque pilotari-guantelari paregabe-ari eta azkenik, aureskua dantzatuko da Bear-Zana plazaren omenez. Ekitaldi guzti hauen ondotik, 14:00etan egingen da herri bazkaria. Txartelak 25 eurotan salgai daude Titi eta Xanti ostatuetan, irailaren 14a bitarte. Horretaz gain, kamisetak ere salgai paratu

dituzte, 10 eurotan. Bazkal giroko eta bazkalondoko musika Mikel Sa-laberriren eskutik izanen da.

### 1855EAN PILOTA PLAZA

#### ETA 1930EAN EZKER PARETA

Bear-Zana egin aitzinetik Donezteben bertze plazaren bat bazela ageri da liburuetan. Bear-Zana 1855ean egin zen, 35.711 erre-al eta 50 xentimoren truke. Kopuru horretatik 4.864 erreal lurra erosteko erabili zen; bertze 280 erreal bertan zeuden fruituak ordaintzeko eta zatirik handiena, 30.567 erreal eta 50 xentimo, peoiak eta materiala ordaintzeko. Udaletxeak ordaindu zuen lana eta ondoko mantenimendu lanak ere bere esku zeuden. Honela, plaza egin eta urtebetera, 1856an, Joaquina Juana-torenari 168 erreal ordaindu behar izan zizkion, «*Pilota Jokoaren ondoan duen lurrean sortutako kalte-engatik*».

Joku Luzerako plaza egokienez-takoa omen zen Bear-Zana: irekia eta zabala. Zola hareaz estalia zuen eta azpian, drenatze berezia zeukan, euria egiten zuenean putzurik ez egiteko eta berehala idortzeko. Idorregi zegoenean, berriz, hautsa ez harrotzeko bi iturri zituen. Zola eta erreboteko paretak ez dute 90 graduko angelua egiten, irekiagoa baizik, honela indarrez datorren pilota gehiago altxatzeko.

Moldaketarik handiena 1930an etorri zitzaion Bear-Zanari, ezker pareta egin zitzaionean. Herri aunitzetan joku luzearen orde-zker pareta jarri zuten. Donezteben, ordea, frontoia plazaren barnean egin zen. Honela, joku luzearen tradizioa errespetatuz, kirol premia berriak soluzionatu ziren.

## BITXIKERIA ARKITEKTONIKOA: ERREBOTE BIRAKARIA



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Aurtengo laxoa txapelketaren finala ere Bear-Zanan jokatu zen abuztuaren 7an. Bertze hainbat partida handi hartu ditu Doneztebeko plazak 150 urteotan.**

Bear-Zana pilota plazak 75 urte zituenean, 1930ean egin zitzaion ezkerpareta, 46.977,34 pezetaren truke. Zorionez, horrek ez zuen joku luzearen desagertzea ekarri. Baina ezker paretaz gain, inon ikusi ez zen bitxikeria arkitektonikoa ere egin zitzaion: errebote birakaria. Orduko Doneztebeko alkatea, Emilio Azarola, ingeniaria ere bazen eta berak asmatu zuen erreboterako mugitzen zen pareta. Burnizko egitura estaliz egin zen pareta eta errail batzuen gainean ezarri zen, mugitu ahal izateko. Biradera edo manibela baten bitartez, pertsona bakar batek mugitzen ahal zuen errebotea. Lehenbiziko arazoa errebotea kokatzerakoan sortu zen, pisuarengatik zola pixka bat jautsi eta biradera ez baitzen zegokion lekuan sartzen. Arazo hori moldatu zen, baina ha-

lere, guttitan erabili zen Azarolaren asmakizuna. Izan ere, pilotak burnizko ha-bea zegoen lekuan jotzen zuenean bi-zi-bizi ateratzen zen eta bertzenaz, hila gelditzen zen. Halere, pilotaren historiarako hor gelditu da errebote birakariaren mekanismo bitxi hau.

1989ko uztailaren 4an Gipuzkoako egunkari batean ageri zenez, Huelva-ko Palos de la Fronterako frontoian errebote birakaria ezarri zuen Fernando Picó industrialak. Egunkari horrek asmakizun berritzailetzat jo zuen hori, 59 urte lehenago horrelako bat Donezteben ezarri zela jakin gabe, noski. Juan Mari Artazkoz guantelari doneztebarrak eskutitza igorri zion egunkariko zuzendariari, Azarolak asmatutako errebotearen berri eman ez eta Doneztebera laxoa partida bat ikustera gonbidatuz.

## Patxiku GANBOA *Laxoa Elkarteko kidea*

*“Herri guztiarendako besta eguna da, ez laxoa zaleentzako bakarrik”*

**Laxoarako plazarik onenetako omen da Bear-Zana...**

Zaila da plazarik onena zein den erratea, gusto pertsonalaren ere hor sartzen baitira. Nik erraten ahal dizut, ni hagitz gustora aritzen naizela Bear-Zanan. Hori bai, garai batean plazarik onenetakoa izanen zen, bere zabaltasunarengatik eta bere garairako zitu- baliabideengatik. Erreboteko pareta eta lurra ez dute an-

gelu zuzena, gaur egun duen zola eman baino lehen harea bustitzeko iturriak, drenatze sistema... Bere garaian onena izanen zen, seguru baietz! **Laxoarako ez ezik, bertze hainbat gauzetarako ere erabili da Bear-Zana...**

Hainbertze laxoa partida jokatu izanen dira, bai, baina baita bertzelako pilota modalitateko partidak ere, aizkora apostuak, dantza saioak... He-

rriko plazaren funtzioa ere bete du, herritarren bilgunea izan da. Beraz, irailaren 18ko besta eguna ez da laxoa zaleentzatzat edo gazteentzatzat bakarrik, herritar guztientzatzat baizik.

**Munduko Pilota Txapelketaren barnean ere partidak jokatu dira Bear-Zanan...**

1962an eta 2002an Iruñean eta 1970ean Donostian jokatu ziren Munduko Pilota txapelketen barnean, laxoa erakustaldi partidak jokatu ziren Bear-Zanan, ez Iruñean ezta Donostian ere ez baitzen plazarik.

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.info

info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaiz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...  
**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	28 e
Espainia	28 e
Ipar Euskal Herria	40 e
Europa	40 e
Amerika	108 e
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizta	23 e



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jauriaritzako Kultura Sailaren  
laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Goizuetako festetako programa

Galdera bat dagokionari: zein arrazoi daude eta zer kriterio erabili da Umore Onako eta ikasto-

lako tabernako iragarki-ak herriko festetako programan ez agertzeko?

Ibon ELIZEGI.

Umore Onako bazkide  
eta ikastolako  
laguntzaile.

Eskutitz guztiakin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

MATRIKULATU IRAILAREN 12TIK 21ERA ETA ...

# IZONA OMAN EUSKALTEGIAN

EUSKARA IKASI ZUBIARTEN

2005-2006ko lehenengo lauhileko ikastaro motak

MAILA BAZTANTZARAKO IKASTAROK	ITARRASORAKO IKASTAROK	BATASORAKO IKASTAROK
<ul style="list-style-type: none"><li>○ Egunero 4 orduko ikastaroak, ast 20 ordu,</li><li>○ Egunero 2 orduko ikastaroak, ast 10 ordu,</li><li>○ 3 ordu eta 20 minutuko ikastariak, hiru egun, 10 ordu astean,</li><li>○ Egunean 6 orduko ikastaroak, ask 30 ordu.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>○ Maila guztiak,</li><li>○ Astel eta asteas. Edo asteat. eta osteg.</li><li>○ 17:30 - 20:30</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>○ Egunean ordu bat eta erdi. astean 6 ordu,</li><li>○ Astel, ast osteg eta ostiral..</li><li>○ 15:00 - 16:30.</li></ul>

**ZUBIARTE**  
Euskaltegi Publikoa

Makarte Parkoa - zip • 31625 UHARTE • Tel: 948 36 10 91 Fax: 948 36 10 92 • [www.zubiarte@goe.nafarroa.es](mailto:www.zubiarte@goe.nafarroa.es)

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Berria 2005-07-27

«Orain jendeak errematatzaileak nahi ditu, tanto politak egin eta azkar bukatu. Gutxi sartzen den aurrelari batek aukera gutxi du orain gora egiteko. Atzelaria ere berdin: eman era pilota berehala errebotean sartzen duena. Partida ordu eta erdiz luzatzen bada, partida zozoa da. Alustiza ere pelma zen, baina 22ra gehien iristen zena. Gaur oso gutxi baloratzen da hori»

Antton MAIZ  
Arantzako pilotari ohia  
Berria 2005-07-27

«Eskaintza batzuk banituen. Espanyol taldearena aukeratu dut, talde haundietako bat delako eta gehien gustatzen zitzaidana zelako. Esperientzia berri bat bizi nahi dut, eta unibertsitatean ikasten segitzeko aukera izanen dut. Aldaketa emakumeen futboleko haundietako batean jokatzeko egiten dut, baina pisua ere eskaintzen didate, ikasketak ordaindu eta bizitzeko zerbait gehiago».

Ane BERGARA  
Berako futbolaria  
D.vasco 2005-07-28

• 11 GALDERA LABUR •

**Zein nahiago duzu, trenean lan egin ala ordainlekuan?**

Beherean ordainlekuan hala usatua naizelako, bestenez airea hartzeko trenean.

**Zer kezatzen zaitu gehien ordainlekuan?**

Jendea gaizki mintzatzen delarik.

**Zein nahiago duzu basurdearen ondotik lasterka edo Ramuntxo Lamotheren ondotik?**

Bien ondotik, aitzinean ez naiz ibiltzen ahal gehiago.

**Pasta tomate saltsarekin edo txuleta eder bat?**

Txuleta bat dudarik gabe.

**Lasterka ibiltzetik noiz geldituko zara?**

Aurten gelditua naiz bainan heldu den urtean berriz abiatu behar dut.

**Amstrong politikan hasiko omen da. Zuk zer egin behar duzu lasterka ibiltzetik gelditzen zarenean, Sarako auzapez?**

Ez, ez dut uste politikan hasiko naizen. Denbora gehiago pasatuko dut ihizian.

**Sarako bestetan larunbata ala asteazkena nahiago duzu?**

Astelehena, Sa-

ratarrekin ibiltzeko.

**Bestetan zein duzu gustokoena, dantzatzea, kantatzea edo lagunekin solastea?**

Kantatzea.

**Erramun Martikorena ala Anje Duhalde?**

Erramun Martikorena.

**Zer falta da besten egitarauan?**

Zerbait gehitu behar bada, artzain zakur txapelketa.

**Bestetan zer eginen duzu zure emazteari plazer egiteko?**

Jatetxera gomitatuko dut.



**Mixel LARZABAL**

*Larungo treinen langilea eta mendiko lasterkaria*

**MENDI**  
ostalaria  
Santago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

arropek - maindireak  
mantak - nordikoak  
toallak - kortinak  
alfonbrak  
**Goya**  
Bera  
Altoa, 5 - Tel: 948 630 083

**SOULE**  
fileta artea  
Tel: 948 453 444  
Mug: 629 659 583  
**ARIZKUN**

**Pitti**  
eskabazioak  
Tfnoa:  
616 513 491  
Mendizaina etxea, 34  
ZUBIETA

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK  
Melamina taulak  
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)  
Txapaz estalitako taulak  
Entzimerak  
Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak  
Pintura eta berrizak  
Bainurako mogleak eta osagarriak  
KIT mogleak, esku-erremintak, etab...  
Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

Carlos  
Juraiholzetxe  
Elxenik  
abokatua  
948 581 468  
948 580 433  
Frantzako etorb. 12  
Ametzalde 38  
ELBETE

## ABELTZAINZA

# Mendialdeko azpiegiturendako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak

Iruritako Loitzu udal hiltegia gaur egungo araudira egokituko da

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak dirulaguntza eman die mendialdeko hainbat udal erakunderi, 2005. urtean abeltzaintza azpie-

giturak egin edo mol-datzeko. Dirulaguntza hauek, egiazko kostuaren %60a estaliko dute. Baztango Udalak bi dirulaguntza jasoko ditu: 56.588 euro abeltzaintza esplotazioetara argindarra sartzeko eta



ARTXIBOKOA

Loitzuko udal hiltegia gaur egungo araudira egokitzeko 123.411 euroko dirulaguntza hartuko du Baztango Udalak.

123.411 euroko dirulaguntza Loitzuko udal hiltegia gaur egun dagoen araudira egokitzeko lanak egiteko. Gainerako dirulagun-

tzak baserrietara doazen bideak hobetzeko eskuratuko dituzte eskualdeko udalek. Honela, Arantzako Udalak 180.000 euro jasoko di-

tu, Etxalarkoak ere 180.000 euro hartuko ditu, Oizko Udalak 123.669 euro eta Sunbillako Udalak 130.787 euro.

## LESAKAKO KULTUR EGUNAK

Antolatzailea: Lesakako Euskara Batzordea  
Irailaren 13tik 24ra

### EGITARAUUA:

Irailaren 13an, asteartearekin: mahaingurua, *Goi mailako kirola eta euskara*

Irailaren 15ean, ortzegunarekin: txontxongiloak

Irailaren 16an, ortziralarekin: *Zura* taldeak kantaldia eskainiko du

Irailaren 18an, igandearekin: *Euskara sencilloaren manifestoa* antzezlanak

Irailaren 21ean, asteazkenarekin: haurrentzako jolasak. Kulki

Irailaren 22an, ortzegunarekin: *Maribitxiren ipuinak*

Irailaren 23an, ortzilararekin: *Bertso trama*



Lesakako Euskara Batzordea

Lesaka



**BERA**


## Herriko argazki artxibo digitala sortu nahi du kultur batzordeak

Illekuetako bestak irailaren 17 eta 18an ospatuko dira

**Amaia eta Ainhoa**

Berako Kultur Batzordeak herriko argazki artxibo digitalizatua osatu nahi du, eta horretarako, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena sinatu du. Erakunde honen esku geldituko dira digitalizio lanak eta beharrezkoak diren tresna eta baliabideak. Berako ohiturak, familia giroa, etxeak eta gainerrako arloak erakusten dituzten argazkiak bildu nahi dira, 1975. urte aurrekoak.

Artxibo hau sortu ahal izateko herritarren laguntza eskatzen du Kultur Batzordeak. Irailaren 1etik 30era bitartean, astelehenetik ortziralerara, etxean dauzkagun argazkiak Kultur Etxera eramatea eskertuko lukete. Bertan argazki bakoitzaren fitxa beteko da, zenbakia paratuko zaio eta Eusko Ikaskuntzak digitalizatuko du. Ondotik, argazkiak jabeari itzuliko zaizkio eta argazki artxiboa osatzen



ARGAZKIA: AMAIA

**Berako udaletxean moldaketa lanak egin ondoren, bulego berriak beheko solairuan egonen dira. Aste honetan bulego berrien ateak idekiko dira betiko ordutegia mantenduz, goizeko 9:00etatik 13,30etara.**

denean, Berako argazki artxiboaren kopia bat formatu digitalean oparituko zaio lagundu duen guztiari (CD, CD-ROM edo DVD batean).

Halere, informazio gehiago nahi duenak Kultur Etxeko 948631222 telefonora deitu edo kultura@berakultura.net helbidera mezua bidali dezake.

**Illekuetako bestak irailaren 17 eta 18an**

Datorren Irailaren 17 eta 18an ospatuko dira Illekuetako bestak. Larunbatean, eguerdiko 12etan botako da altxaferua beste hasiera emanez eta segidan haurrek jokoekin ongi pasatzeko aukera izanen dute.

Arratsaldeko 14:00etan, aldiz, Illekuetako karrigan bazkaria eginen dute auzotarrek. Irailaren 18an, igandearekin, Matzadako Tiro Txaelketa herrikoia XXXVII. edizioa jokatuko da goizeko 10:30etatik aintzinerara eta ondotik, eguerdiko 12:00etan auzoan bertan meza izanen da.

**FLASH**

**Nafarroako Bertsolari Txapeldunen Liga**

Bortzirietako Bertso Eskolak antolatuta, irailaren 18an, igandean, Nafarroako Bertsolari Txapeldunen Liga ikusi ahal izanen da Berako Kultur Etxean. Arratsaldeko 17:30etatik aintzinerat. Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Joxe Juan Zubieta "Etxabe" eta Julen Zelaieta eskualdeko bertsolari handiak debalde aditzeko aukera bikaina izanen da.

**Ricardo Baroja eskolako bestarako sarrerak**

Ricardo Baroja Eskolako urrian 25 urte beteko ditu eta 8an besta handia eginen dute. Hilabete honetan kamiseta eta pin- ez gain bazkarirako txartelak salgai jarri dira. Bazkarirako txartelak bakarrik Ikuilu eta Errekalde ostaruetan eta eskolan eskuratu ahal izanen dira.

**X. Jon Irazoki Memoria**

Baztan futbol taldeak irabazi zuen abuztuaren 27an Jon Irazoki zenaren omenez hamargarren aldiz jokatutako txapelketa. Beti Gazte bigarren eta Gure Txokoa hirugarren izan zi-

**BERA** Zare ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagatxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

**GUREKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 630 155 (Alkaiaina Industrialdea) **LESAKA**

**ANSONEA** Julietxena

Ostatu eta terraza berriak ireki ditugu

Ejuneroko menua, karia eta asietandun menu bereziak

Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - **BERA**

**TOKI ONA** **BERA** **Urdul Bera**

**Udal kiroldegia**

2005-06 Kirol jardueren programa. Apunta zaitetz!

Izen ematea: Irailaren 19tik 24ra

ANIMA ZAITEZ GUREKIN KIROL EGITERA!

INFORMAZIOA: kirol bulegoa: 948630215

## LESAKA



ARGAZKIA: AITOR

Marmitako txapelketa aurkeztu zuten Javier Zubieta, Miguel Angel Castro eta Cañi Zayas, Musika bandako partaideek.

## Euskal Herriko Marmitako txapelketa antolatu du Musika Bandak irailaren 17an

Duela hogeitau urte ere Lesakan egin zen

### Aitor AROTZENA

Lesakako Musika Bandak Euskal Herriko XXVIII. Marmitako txapelketa antolatu du, udalaren laguntzaz. Egun horretan Euskal Herri osoko elkarte gastronomikoak espero dira herrian. 9:00etatik aitzinera harrera egingen zaie partehartzaileei eta 10:00etan sukaldari talde osoari argazkia egingen zaio. 10:30etan hasiko da txapelketa eta 13:00etan bilduko dira marmitak. 14:30etan bazkaria egingen da. Le-

hendabizi entremesak izanen dira, gero marmitakoa eta azkenik postrea, kafea eta kopa. Bazkarirako txartelak 17 euroan salgai daude. 17:00etan txapelketaren irabazlea zein den jakinen da eta sariak banatuko dira.

### Elbarritasunari buruzko jardunaldiak

Elaia elkarteak, elbarritasunari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Irailaren 14an egingen da inaugurazioa Be-

ti Gazteko lokalean 13:30etan. 17:00etan elbarritasunari buruzko mahaingurua eskainiko dute Carmen Garde Ansa eta Joseba Cerrillok. Irailaren 14tik 20ra elbarritasunari buruzko erakusketa ikusgai izanen da Beti Gazten. Irailaren 16an, ortziralean, Anfasen eskutik elbarritasunari buruzko hitzaldia izanen da Kasinon 17:30etan. Irailaren 28an akautuko dira jardunaldiak, 19:00etan Kasinon egingen den ekitaldiarekin.

## Bittiriko bestak asteburu honetan ospatuko dira

Zea Mays eta Jauko Barik taldeen kontzertua izanen da ortziralean

### A.A.

Irailaren 9tik 11ra ospatuko dira aurten Bittiriko bestak. Ortziralean, 18:00etan mus txapelketa jokatu da. 20:00etan patata txapelketa egingen da. 21:00etan botako da txupinazoa eta kalejira egingen da. 21:30etan Txooxt! berendu afaria egingen da eta 23:00etan rock kontzertua eskainiko dute Zea Mays eta Jauko Barik taldeek.

Larunbat goizean, diana izanen da txistu-

lariekin. 11:30etan goitibehera txapelketa egingen da eta 13:00etan asto lasterketa. Ondotik, auzo bazkaria izanen da, Jon Maia, Mañukorta eta Xabier Silveira bertsoariaren eta txarangaren laguntzarekin. 19:30etan berbera izanen da Ezein taldearekin.

Igandean, azkenik, 11:00etan haur jokoak izanen dira. 17:30etan Estitxu Mentaberri ipuin kontalaria arituko da eta 18:30etan trikitixa jaialdia izanen da.

## Kultur Egunak antolatu ditu Euskara Batzordeak

Bi astez hainbat ekitaldi egingen dira

### A.A.

Euskara Batzordeak antolatuta, Kultur Egunak egingen dira. Irailaren 13an, «Goi mailako kirola eta euskara» mahaingurua izanen da pleno aretoan, 19:30etan. Irailaren 15ean, txontxongiloak izanen dira igerilekuan 17:00etan. Irailaren 16an, Zura taldeak kantaldia eskainiko du plazan 21:30etan. Irailaren 18an, «Euskara

sencilloaren manifestoa» antzezlanak ikusgai izan da Kasinon 19:00etan. Irailaren 21ean, Kulki taldearen eskutik haurrentzako jolasak izanen dira ikastolan. Irailaren 22an, «Maribixiren ipuinak» entzungai izanen dira liburutegian 17:00etan; irailaren 23an, bertso-trama izanen da Matxinbeltzenezan, Jon Maia eta Amets Arzaillusekin 20:00etan.

**XATURET XEA**  
ZAZPI  
JATET XEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**GOZZ-ALDE**  
JAVIERRE UZARRI  
Tfnoa: 948 637 127

**IRU BIDE**  
E ETE IA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

Tasitak - mantelariak - eloko maizdirak  
eskolako haurren mantelak etak...  
berdatsen ditugu.  
Mantelak berria,  
berriak eta berriak berriak berriak...  
eta joko berriak berriak berriak...  
Tol: 948 627 660  
689 481 980  
Plaza Herri 6 -1a  
eta iban bertako  
eskaintza!!!

## ETXALAR

# Larunbat honetan egingen da udaletxean Usategietako postuen urteroko subasta

Antsolokuetako bestarik ez da egingen eta Urritzokietakoak irailaren 18an izanen dira

### Joseba eta Nerea

Larunbat honetan, irailak 10, egingen da Udaletxeko Batzar Aretoan urteroko Usategietako postuen subasta. Eguerdiko 12etan hasiko da eta 31.047 eurotan ateriko dira 22 postuak, joan den urtean baino 1.194 euro garestiago. Berriz ere garestiena Lehenbiziko Sarea izanen da, 2.741 eurotan. Bigarren posturik garestiena Parapettoa, 2.641 eurotan. Enkantea jende aitzinekoa izanen da. Tanto bakoitzak 10 euro balioa izanen du eta tasatutako prezioei %16ko BEZ gehitu beharko zaie. Horretaz gain, %2,5a udaletxearentzako izanen da, gastuak ordaintzeko. Subastaren ondotik aste bateko epea izanen dute ehizturiek postuei sestetak emateko. Irailaren 21ean egingen da bigarren subasta, sesta jasoduten postuak adjudikatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Teodoro Iribarren, Cipriano Sansiñena eta Joxe Mari Olagarai, Antsolokuetako bestetako hiru historiko, 1996an ateratako argazkian.**

### Antsolokuetako bestarik ez aurten

Duela 25 bat urte furia handiarekin hasi ziren Etxalarren auzotako bestak egiten. Ināurretakoak izan ziren lehenbizikoak. Ondotik, Antsolokuetakoak hasi ziren eta joan den urte-

rarte ez dute behin ere hutsik egin.

Telleriko Blanki Perezek erran digunez, «ez naiz seguru-seguru oroitzen baina uste dut 1982. urtean egin genuela lehenbizikoa. Orduan Kamioan izaten zen. Handik pixko batera lekuz aldatu eta

Eguzkiagerreko Larrainera pasatu ginen. Joan den urterarte hantxe egin dugu urtero». Giro ederra oroitzen du Blankik urte horietan guzietan. 70 bat lagun biltzen ziren bazkaltzeko eta ondoko musika doinuekin berandurarte luzatzen zen besta kasik

urtero. Hala ere, poliki-poliki galduz doazen bestak dira auzotakoak. Aurten Antsolokuetakoak gelditu dira eta ez dakigu hurrengo urteetan segituko ote dute. Hala ere, polita litzateke berriz ere hastea, antolakuntzaren erreleboa bertze norbaitek hartuz.

### Urritzokietakoak bai

Urritzokietako bestek historia desberdina dute. Herriko auzotakoak baino lehenagokoak dira eta oraindik aski arrakastatsu segitzen dute. Aurtengoan ere ez dute hutsik egingen. Irailaren 14an, ortzeguna, meza izanen da Santa Krutz ermitan eta igandean, irailak 18, Sainduneko Bordako zubian bilduko dira 70 bat lagun giro ederrean bazkaltzera. Ondotik, musika izanen da eta ordu tikiak arte luzatuko da besta seguraski, urtero bezala.

**HERRIKO**  
OSTATU... JATEKIA

Antsolokuetakoak - BEZ 16%  
Etxe - MARRAZA

**Maderas GOMEN**

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izelak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia industrialdea - Tel: 948 580 645 - IRURITA

**USOA**  
nekazari kooperatiba  
ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**DEÑE**  
Leizorin  
Marratzen  
948 627 514  
Bilboko zuzena: B. I. BARRA

## ARANTZA

# Bestek, Arantza Rock jaialdiak eta bertzelako berriek hornitu dute uda

Herriko eskolako ikasleek ikasturte berriari ekin diote

## Nerea ALTZURI

Herriko bestak, abuztuaren 13tik 17ra iragan ziren. Orokorrean egitaraua aitzinera eraman zen, zehazturiko ekitaldiak eginez. Hala ere, igande goizean egitekoa zen herri kirol erakustaldia bertan behera geratu zen, perkan-tze bat tarteko. Gainerakoan, egitarauan zehaztu ez ziren bertze ekimen batzuk ere bestetan izan zirenez, horien aipamena eginen dugu.

Larunbatean hasi ziren bestak eta altxaferruaren ondotik, herriko dantzari gaztetxo eta

tixistulari taldeak emanaldia eskaini zuen plazan. Amabirjin egunean berriz, herriko berzko dantzak eskaini ziren mezaren eta omenaldi ekitaldiaren ondotik. Iaz bezala, aurten ere, bestatako azken egunean herri bazkaria izan zen elkartearen Ekaitzak antolatua. Giro ederrean bukatu zituzten bestak.

## Zorionak Arantza Rock!

Iaz bezala, aurten ere, bestak bukatu eta hurrengo larunbatean Arantza Rock Jaialdia burutu zen. Abuztuaren



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den abuztuaren 25ean Erronkarira bidaia egin zuten aranztarrek eta igantziarrek. Urtero parrokiek bi herrietako familia bakoitzak astero urtean zehar eliza garbitzen duela eta, sari moduan, bidaia antolatzen du. Aurten, 62 lagunek Burgiko Almadiaren Museoa eta Interpretazio Zentroa, Erronkariko Julian Gaiarrerren mausoleoa, Uztarrotzeko Gaztaren museoa eta San Antonioko Harriak bisitatu dituzte. Egun ederra pasatu zutela erran digute. Ateraldira joan ezin zutenek, berrogeita hamar lagun inguruk guztira, berrendua egin zuten lehentxeago.

20an izan zen eta aurten, hamargarren urte bete du jaialdiak. Gazte Asanbladak balorazio positiboa egin du, nahiz eta eguraldiak bature ez lagundu, 800 lagun inguru izan ziren kontzertuan. Egun osoko egitaraua prestatu zen ordea. Hamar edizioetako kartel eta kamiseten erakusketa ikusgai jarri zen. Ilunabarrean, Baztango kirrikoketa eta batukada saioak eskaini ziren. Arratsean, Kasu, Ekolau, Kanka eta EHSuka-

rra taldeen emanaldia izan zen eta antolatzaileen hitzetan, Kankaren emanaldian ikus-entzuleen gorakada nabarmena izan zen. Lanean aritutako lagun taldeak urriaren 8an afaria egiten du elkartearen. Zorionak beraz denei!

## «The Blackwoods» filme luzea

Koldo Serra zuzendari bilbotarra eta filmeko aktore taldea Euskal Herrian "The Blackwoods" film luzea grabatzen ari dira. "Itzalen

basoa" izaneko filmean Artikutza inguruak grabatu dituzte. Aste honetan Eratsunen omen daude grabaketak egiten. Hurrengo geldiuenean, Itsaso eta Arantza izanen dituzte. Beraz, dataren berririk ez badugu ere, herri inguruak ere aukeratu dituzte filmerako. Aktore taldean, Gary Olman eta Aitana Sanchez Gijon daude protagonisten paperak betetzen. Filme hau heldu den urteko Donostiako zinemaldian estreinatuko nahi dute.

## BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN PROMOZIOA

Elkarri ilxekitako etxebizitzak (Vivienda adosadas)

Izena emateko azken eguna: 2005-09-16

Eskatu informazioa:



## Aldai Viviendas

Gorriti, 39 - bajo  
31003 Pamplona  
Tel: 948 29 14 13  
Fax: 948 23 98 34

aldai@aldai-viviendas.com

**Ituzia**  
Iozaintza  
Fermin Marijorena Larralde  
© 666 407214 • 948 631199 • BERA

**umeto**

HAURREN MOBILAK ETA DEKORAZIOA • FUERKLELURA • PREMAMA ARROPA

Alkaioga ind. - Alaitz • LESAKA • Tfn: 948 630 475  
Jose Arana 14 • IRÚN 20302 • Tfn: 943 618 432  
Eduko Kalea 28 • RENTERIA 20100 • Tfn: 943 111 585

umeto@umeto.es

## IGANTZI

# XV. Mendi-bizikleta ibilaldia jokatu heldu den igandean

Hilabete baten barranean izanen da Jaitsiera proba ere

**Oskar TXOPERENA**  
Mendi-bizikletari lotutako hitzordua izaten dugu igantziarrok irailaren bigarren igandean, aurtengoarekin hamabosgarrenez. Azken orduko xehetasun tiki batzuk lotu faltan, prest daude Biltoki Elkarte-koek, azken urteetako moduan, 100 txirri-ndularitiki goiti herrian behar bezala hartzeko. Irai-

laren 11n egokitu da aurtengo ibilaldia eta goizeko 10:00etan da hasitekoa. Pixka bat lehenago, 9:30etan, itzuli tiki-eginen da adinaren- gatik proba nagusian ibili ezin diren haurren- tzat.

Ohiko moduan, sari banaketa eta hamaiketako izanen da partehartzaileentzat proba akaututakoan.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

